

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko urriaren 3an hartutako erabakiaren laburpena: 2026ko inauterietan parte hartuko duten konpartsei diru-laguntzak emateko deialdia

BDNS (Identif.): 861170.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convo-catoria/861170>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurre-ikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Entitateak, baldin eta elkarte gisa legez eratuta badaude, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean dagokien erregistro ofizialean erregistratuta badaude eta egoitza Vitoria-Gasteizko udalerrian badute.

Bigarrena. Helburua

2026ko inauterietan konpartsen parte-hartzea sustatzea.

Hirugarrena. Oinarriak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko urriaren 3an egindako ohiko bilkuran onartutakoak; ALHAOn argitaratuko direnak.

Laugarrena. Zenbatekoa

95.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa da, oinarri hauen deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urriaren 3an

Zinegotzi ordezkaria

SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA